

NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2018ko abenduaren 13a

152. ZK.

A U R K I B I D E A

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

—Nafarroako toki sektore publikoari buruzko fiskalizazio txostena, 2016, Kontuen Ganberak egina (2. or.).

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Nafarroako toki sektore publikoari buruzko fiskalizazio txostena, 2016, Kontuen Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko abenduaren 10ean eginiko bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontuen Ganberak egin du Nafarroako toki sektore publikoari buruzko fiskalizazio txostena, 2016.

Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearen 8.c) artikuluari dagokionez Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 205. artikuluan ezarritakoarekin bat, hona hau ERABAKI DA:

1. Txosten horren edukiaren jakinaren gainean dagoela adieraztea.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2018ko abenduaren 10ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Nafarroako toki sektore publikoari buruzko fiskalizazio txostena, 2016, Kontuen Ganberak egina

AURKIBIDEA

- I. Sarrera (3. or.).
- II. Helburua, norainokoa eta mugak (4. or.).
- III. Toki sektore publikoaren antolaketa-egitura eta araudia (6. or.).
 - III.1. Antolamenduzko egitura (6. or.).
 - III.2. Toki sektore publikoa arrazionalizatzeko planteatu diren lege-neurriak (8. or.).
 - III.3. 2016an onetsitako araudia (9. or.).
- IV. Toki entitateen fiskalizazio-jardueren laburpen-oroitidazkia (10. or.).
- V. Toki sektore publikoaren finantza-egoera (13. or.).
 - V.1. Diru-sarrerak (13. or.).
 - V.2. Gastuak (14. or.).
 - V.3. Adierazleak eta magnitudeak (15. or.).
 - V.4. Aurrekontu-egonkortasuneko eta finantza-iraunkortasunaren helburuak (16. or.).
- VI. Kontratazio administratiboa (17. or.).
- VII. Nafarroako toki entitateetako kontu-hartzaileek 2016an egindako eragozpen-oharrak (19. or.).
- VIII. 9.000 biztanletik gorako udalen egoera ekonomiko finantzarioaren analisisa (20. or.).
- IX. Konklusioak eta gomendioak (23. or.).
 1. eranskina Toki entitateei 2016ko ekitaldian aplikatzekoa zaien araudia (26. or.).
 2. eranskina. Nafarroako toki sektore publikoaren egoera finantzarioa, 2016koa.

(Oharra: 2. eranskina foru parlamentarien esku dago Agora aplikazioan eta honako web helbidean:
www.cfnavarra.es/camara.comptos).

I. SARRERA

Nafarroako toki sektore publikoari buruzko txostena egin da Kontuen Ganberari buruzko abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearekin bat, eta Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailearen 2ko 6/1990 Foru Legea betez. Izan ere, lege horretako 350.2 artikulua ezartzen duenez, Kontuen Ganberak urtero igorriko die laburpen-oroitidazki bat Nafarroako Parlamentuari eta Nafarroako Gobernuari, Nafarroako toki entitateen arloan Kontuen Ganberak egindako fiskalizazio- eta kontrol-jarduerei buruzkoa.

2016ko ekitaldiari buruzko txostena ezin izan da lehenago egin, Toki Ogasunei buruzko Foru Legeak toki entitateek ekitaldi bakoitzeko kontu orokorra onesteko eta Gobernuari igortzeko ezarritako epeak eta informazio horren tratamenduaren konplexutasuna direla-eta.

Txostenak bederatzi atal ditu, sarrera hau barne. Bigarrenean, egindako lanaren helburuak, noraino-koa eta mugak erakusten ditugu. Hirugarren ataletik zortzigarren atalera 2016. urteari buruzko honako alderdi hauek jaso dira: toki sektore publikoaren antolamendu-egitura eta onetsitako arau nagusiak, Kontuen Ganberak toki sektore publikoari buruz egindako fiskalizazio-jarduketan oroitidazkia, haren egoera finantzarioa, toki entitateen kontratazio administratiboa, toki entitateetako kontu-hartzailetzako langileen eragozpen-oharrak, eta 9.000 biztanletik gorako udaletako zenbait alderdiri buruzko analisia. Azken epigrafeak egindako lanetik ateratako ondorio eta gomendioak jasotzen ditu. Txostenarekin batera, gainera, bi eranskin badaude, honako hauek biltzen dituztenak: Nafarroako toki entitateei 2016an aplikatzekoa zaion araudia eta toki sektore publikoaren 2016ko egoera finantzarioari buruz Nafarroako Gobernuak Toki Administrazioari Zuzendaritza Nagusiak egindako txostena.

Lana 2018ko urritik azarora egin zuen auditoretzako teknikari batek eta auditore batek osatutako lantaldeak, Kontuen Ganberaren zerbitzu juridikoekin, informatikoekin eta administratiboekin lankidetzan.

Eskerrak eman nahi dizkiegu Nafarroako toki entitateetako, Toki Administrazioari Zuzendaritza Nagusiko eta Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioko langileei, lan hau egiteko emandako laguntza-rengatik.

II. HELBURUA, NORAINOKOA ETA MUGAK

Lanaren helburuak hauexek izan dira:

- Nafarroako toki entitateen esparruan Ganbera honek egindako fiskalizazio jardueren 2016ko ekitaldiko laburpena egitea.
- Nafarroako toki entitateen 2016ko kontratazioa deskribatzea.
- Nafarroako toki entitateen 2016ko finantza egoeraren eta antolamenduaren ikuspegi bat ematea Parlamentuari, administrazio publikoei eta Nafarroako gizarteari.
- 9.000 biztanletik gorako udalen 2016ko egoera ekonomiko finantzarioa aztertzea.
- Toki entitateen kontu-hartzailtzek 2016ko jarduerari buruz egindako eragozpen-oharrak aztertzea.
- Toki entitateen kudeaketa hobetzeko gomendioak proposatzea Nafarroako Parlamentuari, Gobernuari eta toki entitateei.

Lanaren norainokoak toki entitateen 2016ko ekitaldiko kontu orokorra hartzen du; honako hauek osatzen dute kontu hori:

- Entitatearen beraren (udala, kontzejua nahiz mankomunitatea izan) kontu orokorra, bai eta haren erakunde autonomoena ere.
- Merkataritzako elkarteenak, horien kapitala oso-osorik kasuko toki entitatearena bada.
- Eranskinak.

Gainera, honako informazio hau berrikusi dugu: Toki Administrazioiko Zuzendaritza Nagusiak egoera finantzarioari buruz egindako txostena; toki entitateen kontratuen erregistroko 2016ko datuak; 2016ko informazio ekonomiko-finantzarioa eta aurrekontukoa, 9.000 biztanletik gora duten udalek aipatutako zuzendaritzari bidalia, aztertutako urtean toki entitateetako kontu-hartzailtzako langileek egindako eragozpen-oharrekin lotutakoarekin batera, zeina Kontuen Ganberari igorri baitzaio egindako informazio-eskaerari erantzunez.

Toki sektore publikoaren egoera finantzarioaren analisia egiterakoan, gure lanerako muga bat izan da informazio ekonomiko-finantzariorik eta aurrekonturorik ez edukitzea 2016ko ekitaldiko beren kontu orokorra Toki Administrazioiko Zuzendaritza Nagusiari 2018ko ekainaren 27an bidali gabe zeuden toki entitateei buruz; honako hauek dira, hain zuzen:

- 272 udaletatik, hiru: Armañanzas, Hiriberri Aezkoa eta Urzainki. Udal horiek 271 biztanle dituzte guztira; horrek populazio osoaren ehuneko 0,04 egiten du.
- 2016an zeuden 347 kontzejuetatik 26: Albiasu, Anotz, Arlegi, Arteta, Asterain, Azpa, Zenborain, Zizur Txikia, Ezkirotz, Gazolatz, Igoa, Lapoblación, Larraia, Lizarragabengoa, Lizasoain, Muru-Asterain, Olatz, Oloritz, Paternain, Saigots, Getze Galar, Undio, Untzu, Zarikiegi, Zarrantz eta Zubiri. Kontzeju horien populazioa 6.129 pertsonakoa da, eta Nafarroako guztizko populazioaren ehuneko bat egiten du.
- 82 mankomunitate eta batasunetatik, 12 entitate; honako hauek, hain zuzen: Ezkabarte-Olaibar Udalen Batasuna; Cadreita eta Villafrancako Zerbitzu Administratiboen Batasuna; Faltzes eta Miranda Argako Zerbitzu Administratiboen Batasuna; Leitza, Goizueta, Areso eta Aranoko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuaren kudeaketarako Mankomunitatea; Malerrekako Zerbitzu Orokorren Mankomunitatea; Auñamendiko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea; Los Arcosko Eskualdeko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea; Erriberriko Barrutiko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea; Goi Araxesko Mankomunitatea; Araiz, Areso, Betelu, Larraun eta Lekunberriko Kirol Mankomunitatea; Orreagako Kirol Mankomunitatea, eta Erdialdeko Erriberako Kirol Mankomunitatea.

Bestetik, zehaztu beharra dago finantza-egoerari buruzko aipatutako azterketa egiten dela toki entitateen eta haien erakunde autonomoen aurrekontu-datu bateratuekin. Ez da informaziorik jasotzen sozietate publikoei, fundazio publikoei eta partzuergoei buruz, salbu eta zorpetzeari buruzko analisisian, horretan udalen eta mankomunitateen menpeko sozietateei dagozkien datuak jasotzen baitira.

Halaber, gure lanaren norainokorako muga bat izan da 2016an egindako eragozpen-oharrei buruz ganbera honek eskatutako informazioari ez erantzutea, udal baten kasuan (Eslaba) eta bi mankomunitateren kasuan (Los Arcosko Eskualdeko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea eta San Franzisko Xabierkoa Egoitzaren Mankomunitatea).

Norainokoak bi muga horiek izan baditu ere, informazio faltaren ondorioz, uste dugu gure lanean lortutako konklusioak, datu horiek eduki izan bagenitu ere, ez zirela oso desberdinak izanen.

III. TOKI SEKTORE PUBLIKOAREN ANTOLAKETA-EGITURA ETA ARAUDIA

III.1. ANTOLAMENDUZKO EGITURA

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legean ezarritakoarekin bat antolatzen da toki sektore publikoa.

Udalak dira lurralde-antolamenduaren oinarrizko toki entitateak. Toki entitatearen mailakoak dira, halaber:

- Kontzejuak: udalaren dermioaren barrenean kokaturiko toki entitateak dira, hark baino populazio eta lurralde esparru txikiagoa dutenak.
- Herri-ondasunen titular edo administratzaile diren korporazio tradizionalak. Bardeako Elkarte, Aezkoako Elkarte, Erronkaribarko Mankomunitatea eta Zaraitzuko Unibertsitatea eta gainerako udalbatzak.
- Mankomunitate edo zenbait udalen elkarteak, obrak elkarrekin egin eta haien eskumenekoak diren zerbitzu jakin batzuk emateko.
- Udal-batasunak, dituzten ezaugarriengatik eskatzen dutenak zerbitzu komunak ematea.
- Administrazio-barrutiak, 5.000 biztanlera iristen ez diren landa inguruneko udalek borondatez osatutakoak.
- Toki partzuergoa: 2014ko abendutik, TAFLa aldatzen duen 23/2014 Foru Legearen bitartez, toki partzuergoak sartu ziren toki entitate gisa. Halere, toki entitatetzat jotze horrek Estatuarekiko gatazka bat sortu zuen; geroztik "Estatuko Administrazio Orokorraren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Lankidetzaz Batzordeak" honako erabaki hau hartu zuen 2015eko irailean:

"a) 23/2014 Foru Legearen 3.1.f; 212.4 eta 5. artikuluek toki entitatearen izaera aitortzen diete toki partzuergoei. Nafarroako Foru Komunitateak konpromisoa hartzen du legegintzaldi honetan lege hori aldatzeko, halako moduz non araua egokituko zaion Toki Administrazioaren Arrazionalizazioari eta Iraunkortasunari buruzko abenduaren 27ko 27/2013 Legearen azken xedapenetatik bigarreanean xedatutakoari —hartan zehazten da partzuergo bakoitza administrazio publiko bati atxikiko zaiola— bai eta estatuko oinarrizko legeriaren gainerakoari ere, halako moduz non toki partzuergoak ez diren Nafarroako toki entitate gisa aitortuko."

Erabaki hori Nafarroako toki entitateei buruzko araudian jasotzekotan edo zehazteketan dago.

Honakoa da toki entitateen kopurua, 2016ko abenduaren 31n, aurreko urteetako toki entitateen kopuruarekin alderatuta:

	2012	2013	2014	2015	2016
Udalak ⁽¹⁾	272	272	272	272	272
Kontzejuak	348	348	347	347	346 ⁽²⁾
Mankomunitateak	65	65	65	63	63
Ohiturazko elkarteak eta udalen batasunak	18	18	19	19	20 ⁽³⁾
Guztira	703	703	703	701	701

(1) 60 udal konposatuak dira.

(2) 2016ko abenduaren 2an, Ollaran Udaleko Artetako Kontzejuak azkendu zen.

(3) Zubietako eta Iturengo Udalen Batasuna sartu da. 1990ean sartu zen, baina ez zegoen ganbera honen toki entitateen erregistroko datuetan.


2012tik 2016ra doan aldian, honako hau da erakunde autonomoen, tokiko enpresa publikoen, tokiko fundazio publikoen eta partzuergoen kopurua:

Entitatea	2012	2013	2014	2015	2016
Erakunde autonomoak	66.	66	65	65	64
Enpresa publikoak	48	50	54	55	54
Fundazio publikoak	9	9	9	9	9
Partzuergoak	16	16	15	15	15*
Guztira	2151	21541	143	144	21432

* Dauden partzuergo guztiak sartu ditugu, zeren eta bakarra ere ez baita tokiko gisa sailkatu txosten hau idazteko datan.

2016an, 2015ekin alderatuta, Antsoaingo Udaleko Gazte Kirol eta Kultura Patronatua erakunde autonomoa desagertu zen, bai eta Burlatako Udaleko Sociedad Municipal Ripaberri Desarrollo Urbano SL ere.

Aurreko datuak kontuan hartuta, hona hemen Nafarroako toki sektore publikoaren egitura 2016ko abenduaren 31n:



2016ko urtarrilaren 1ean, Nafarroako 272 udalerrien biztanleria —errola ofizialeko datuen arabera, 640.647 biztanlekoa— honela zegoen banatuta:

Biztanleria-tartea	Zenbat kopurua	Udalerriak guztizkoaren gainean (%)	Biztanleria	biztanleriaren %, guztizkoaren gainekoa
<100	40	15	2.421	0,4
100-199	53	19	7.378	1,2
200-499	60	22	19.468	3,0
500-999	35	13	25.440	4,0
1.000-1.999	24	9	33.164	5,2
2.000-2.999	23	8	57.050	8,9
3.000-4.999	15	6	57.253	8,9
5.000-9.999	12	4	88.870	13,9
10.000-24.999	8	3	118.783	18,5
25.000-50.000	1	0,5	35.170	5,5
50.000 baino gehiago	1	0,5	195.650	30,5
Guztira	272	100	640.647	100

Aurreko datuetatik, nabarmendu behar dugu Nafarroako udalen ehuneko 69 (188 udal) 1.000 biztanle baino gutxiago dituztela, eta biztanle guztien ehuneko 30,5 Iruñean bizi direla.

Ganbera honek bere txostenetan behin eta berriro adierazi bezala, biztanle-kopuru txikiak dituztenez giza baliabide eta finantza-baliabide mugatuak dituzte eta ez dute administrazio-egitura egokia eta nahikoa beren eskumenak kudeatzeko, eta horrek zaildu egiten du zerbitzuak merke, eraginkortasunez eta kalitatez ematea.

III.2. TOKI SEKTORE PUBLIKOA ARRAZIONALIZATZEKO PLANTEATU DIREN LEGE-NEURRIAK

Ganbera honek Toki Sektore Publikoari buruzko 2015ko txostenean gai honi buruz aipatutako aurrekariak indarrean jarraitzen dute. Txosten horretara jotzea gomendatzen dugu.

2016ko otsailean, Nafarroako Gobernuak parte-hartze prozesu bat abiatu zuen Nafarroako Toki Administrazioaren antolaketa berria definitzeko. Prozesu horretan honako hauek parte hartzen ari dira: Gobernuak berak, Toki Administrazioiko Zuzendaritza Nagusia eragile koordinatzaile gisa erabilita; toki entitateek, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioa eragile koordinatzaile gisa erabilita; parlamentutaldeen; arloko zenbait adituk eta aholkularik; esparruan eskarmentuan duten funtzionarioek, , eta beste lurralde-eragile batzuek.

Zehazki, hiru lantalde ezarri ziren, bi urtez nagusiki tokiko eskumenekin, tokiko plantarekin eta toki entitateen finantzaketarekin lotutako gaiak lantzeko.

Epe hori iraganda, Nafarroako Gobernuak, Toki Administrazioiko Zuzendaritza Nagusiaren bidez, behar diren legegintza-proposamenak egin zituen, Parlamentuak 2017 eta 2018 bitarte haiek gauzatu ahal zituzan.

Nafarroako toki administrazioaren erreforma hau honako printzipio eta oinarri hauek dauzka:

- Lurralde eta gizarte kohesioa.
- Zerbitzu publikoetan kontabilitate analitikoa ezartzea.
- Tokiko boterearen autonomia eta indartzea, askitasun finantzarioarekin bat.
- Efizientzia zerbitzuak ematerakoan.
- Zerbitzuen prestazioaren subsidiarotasuna, zeinak sistema moduan elkarreragiten duten hiru osagai edo faktore baitauzka:

a) Eskumenak eta haien banaketa efiziente eta argia, mailen arabera: kontzejuak, udalak, udalez gainekoak eta foru erkidegoaren mailakoak.

b) Tokiko planta edo toki entitateen berrantolatzea, kontzejuei eutsiz, udalei zentraltasuna ematez eta eskualdeen bitarteko udalez gaindiko antolaketa berri batekin.

c) Finantzaketa, toki entitate guztien finantza nahikotasuna ziurtatuz, eta zerbitzu bakoitzerako behar besteko zuzkidura bermatuz; halaber, sarrera berekiak hobetu nahi dira eta Toki Ogasunen Funtsa banatzeko irizpide berriak definitu nahi dira.

Aurreikusitako programazioarekin bat, hasierako proposamen honek honako fase hauek izan ditu: "aldez aurretikoa", "informazioa-kontsulta" eta "eztabaida"; azken fase horren barruan, 2017ko ekainean, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioak Nafarroako toki administrazioa berrantolatzeke bere proposamenak aurkeztu zizkion Nafarroako Gobernuari, aurreko osagaien arabera multzokaturik.

Nafarroako Toki Administrazioaren erreformarako plana "jendaurreko" fasean egon zen 2017ko maiatzaren 31tik aurtengo abuztuaren 31ra.

Gero, urriaren 24ko 406/2017 Foru Aginduak Nafarroako Toki Administrazioaren Erreformarako Foru Legearen aurreproiektua egiteko prozedura abiatu zuen.

Aurreproiektu horretan, zeina 2017ko abenduaren 18an egin baitzen, herritarrek parte hartzeko epea zabaldu zen 2017ko abenduaren 19tik 2018ko urtarrilaren 9ra.

Egokitzat jo ziren ekarpenak sarturik, 2018ko maiatzean behin betiko aurreproiektua idatzi zen, eta 2018ko uztailaren 4an foru lege proiektua igorri zen Parlamentura; gaur egun, proiektua legegintza-organo horrek onespena eman zain dago.

III.3. 2016an ONETSITAKO ARAUDIA

Nafarroako toki sektore publikoa osatzen duten entitateei aplikatzekoa zaien araudia txosten honekin batera doan 1. eranskinean ageri da. Ondoren, sektore honi aplikatzekoak zaizkion eta 2016an onetsi diren arau garrantzitsuenak zehazten ditugu:

- 1/2016 Foru Legea, urtarrilaren 29koa, 2016rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzkoa.
- 3/2016 Foru Legea, martxoaren 1ekoa, toki inbertsioetarako indarreko plana antolatu eta sustatzeko neurriei buruzkoa.
- 18/2016 Foru Legea, abenduaren 13koa, 2017-2019 aldirako Toki Inbertsioen Plana arautzen duena.
- 21/2016 Foru Legea, abenduaren 21ekoa, toki ogasunek transferentzia arrunten bidez Nafarroako tributuetan parte hartzeko duten funtsaren zenbatekoa eta banaketa 2017ko aurrekontu-ekitaldirako ezartzen dituena.
- 24/2016 Foru Legea, abenduaren 28koa, 2017rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzkoa.
- 29/2016 Foru Legea, abenduaren 28koa, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aldatzen duena.
- 3/2016 Foru Dekretua, urtarrilaren 27koa, Kontratuei buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legearen Europar Batasuneko atalaseak eguneratzen dituena.
- 2016ko irailaren 16ko Ebazpena, Altxorraren eta Finantza Politikaren Idazkaritza Nagusiarena, zeinaren bidez definitzen baita zorpetze-eragiketei eta autonomia erkidegoetatik eta toki entitateetatik heldutakoei aplikatzekoa zaien zuhurtasun finantzarioa.

IV. TOKI ENTITATEEN FISKALIZAZIO-JARDUEREN LABURPEN-OROITIDAZKIA

Kontuen Ganberak ondoko hamar udalen 2016ko kontu orokorraren erregulartasuna (finantzena eta legezkontasunarena) fiskalizatu zuen: Berriobeiti, Tuter, Iruña, San Adrián, Altsasu, Corella, Cintruénigo, Azkoien, Zangoza eta Txulapain; gainera, Zangozako Eskualdeko Zerbitzuen Mankomunitatea fiskalizatu zuen.

Ondoren, toki entitate horiei buruzko datu batzuk emanen ditugu:

Toki entitatea	Txostenaren data	Populazioa 2016-01-01eko erroldaren arabera	Aitortutako betebeharrak	Aitortutako eskubideak	Langileak, 2016-12-31n	Menpeko entitateak			
						EEAAk	Enpresa	Fundazioa	Enpresa-ente publikoa
Altsasu	2018/03/08	7.471	7.586.325	7.399.526	108	2	1		
Berriobeiti	2017/10/18	6.731	4.377.009	4.802.153	18				
Cintruénigo	2018/03/22	7.779	7.059.379	7.461.467	116	1	1		
Corella	2018/03/20	7.642	6.880.582	7.325.630	91	1			
Txulapain	2018/06/01	560	398.477	296.047	2				
Zangozako Zerbitzuen Mankomunitatea	2018/03/26	Ez da aplikatzekoa	1.906.568	1.943.384	19				
Iruña	2017/12/21	195.650	196.241.783	209.813.444	1740	2	5	1	
Azkoien	2018/03/26	5.837	4.655.597	5.356.814	41	1			
San Adrián	2017/12/15	6.225	4.703.644	5.168.861	60	2			
Zangoza	2018/03/28	5.002	5.580.490	6.281.395	90	3			
Tuter	2017/10/27	35.170	35.733.215	38.210.104	326	1		2	1
Fiskalizatutako enteak, guztira		278.067	275.123.069	294.058.825	2.611	13	7	3	1

Fiskalizatutako entitateei buruzko datu nagusiak eta Nafarroako toki sektore publikoa osoa alderatzen baditugu, honako hauek dira emaitzak:

- Fiskalizatutako enteak Nafarroan 2016an daudenen ehuneko bi dira, baina haien biztanleria guztizkoaren ehuneko 43 da.
- Auditoretza egin zaien entitateen diru-sarrerek Nafarroako toki sektore publikoaren diru-sarrera guztien ehuneko 40 egiten dute, eta gastuek, berriz, ehuneko 39.
- Fiskalizatutako udal horien menpeko enteak toki sektore publiko osoaren ehuneko 17 dira.

Finantzen eta legezkontasunaren fiskalizazioen helburua da honako hauei buruzko iritzi bat ematea:

- Finantza-auditoretzako iritzia: ea fiskalizatutako kontu orokorrak, bere alderdi adierazgarri guztietan, irudi fidela ematen zuen ondareari buruz, gastuen eta diru-sarreraren aurrekontuen likidazioari buruz eta toki entitatearen 2016ko abenduaren 31ko finantza-egoerari buruz; bai eta data horretan amaitutako urteko ekitaldiari dagozkion emaitza ekonomiko eta aurrekontukoei buruz ere, aplikatzekoa den informazio finantzario publikoaren arau-esparruarekin bat, eta bereziki, hartan jasotako kontabilitate-printzipio eta -irizpideekin bat.
- Legezkontasuna betetzeari buruzko iritzia: ea Udalaren 2016ko ekitaldiari dagozkion finantzen egoera-orrietan islatutako jarduerak, aurrekontu- eta finantza-eragiketak eta informazioa bat ote datozen, alderdi adierazgarri guztietan, funts publikoaren kudeaketari aplikatzekoa zaion araudiarekin.

Fiskalizazioaren emaitzak kasuko txostenean jaso ziren, eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Kontuen Ganberaren webgunean argitaratu ziren.

Txosten hauei buruzko iritziari dagokionez, honako hauek izan ziren emaitzak:

a) Auditoretza finantzarioko iritzia aldekoa izan zen entitate batean (Berriobeitiko Udala), eta gainerako hamarretan aldekoa izan zen baina salbuespenen batekin. Eremu honetan emandako salbuespen garrantzitsuenak honako hauek izan ziren:

- Oraindik ere ez da amaitu inbentarioaren gaurkotzeko eta gero onesteko prozesua (bederatzi entitate)

- Ez dago jasota administratzaileek udal sozietatearen 2016ko ekitaldiko urteko kontuak egin dituztenik (hiru entitate).
- Ez daude kuantifikatuta, ez kontabilizatuta ere, montepioko langileen pentsioetatik datozen bete-behar aktuarialak (bi entitate).

b) Legezketasuna betetzeari buruzko auditoretza-iritzia aldekoa izan da lau entitatetan, eta gainerako zazpietan aldekoa izan da baina salbuespenekin. Kasu honetan, honako hauek izan ziren salbuespen nagusiak:

- Kontratazio administratiboaz aztertzerakoan, hainbat gastu kontabilizatu eta ordaindu dira kasuko kontratazio-espeditentia izapidetu gabe edo kontratuaren indarraldia amaituta zegoela (zazpi entitate).
- Berrikusitako diru-laguntza batzuen kudeaketan gabezia formalak aurkitu dira (bi entitate).

Honako hauek dira Ganbera honek entitate horien fiskalizazioan 2016ko txostenetan jaso dituen gomendio nagusiak:

- *Behar diren kontratazio-espeditentia izapidetzea errepikakorrak izateagatik eta zenbatekoagatik araudiaren arabera hala jokatu behar den zerbitzuen kasuan (bederatzi entitate).*
- *Udal-ondasunen inbentarioa onestea, eta haren etengabeko eguneratze eta kontabilitate-jarraipena bideratuko dituzten prozedurak diseinatzea (zortzi entitate).*
- *Hirugarren batekin egindako kontratuen indarraldia gehiago kontrolatzea eta dagokion lizitazio-prozeduraren hasiera behar adinako denboraz planifikatzea (zortzi entitate).*
- *Itxitako ekitaldietako diru-sarreraren saldoak berrikustea, gaur egun behin betiko kobraezintzat jo daitezkeenak kentzeko (zortzi entitate).*
- *Aldi baterako langileen egoera erregularizatzea, eta lanpostu hutsen deialdia egitea, egungo araudiaren testuinguruan (zazpi entitate).*
- *Aurrekontua behin betiko onestea eta argitaratzea legeria indardunak ezarritako epearen barruan (zazpi entitate).*
- *Itxitako aurrekontuetako diru-sarreraren kontzeptu desberdinen kobrantza errazten duten metodo eta mekanismoak indartzea (zazpi entitate).*
- *Lurraren gaineko kontribuzioa ordaindu behar duten ondasunen balorazio-txostena berrikusi edo amaitzea.*
- *Lurzoruaren Udal Ondarearen erregistroa eta inbentarioa sortzea eta hura gainerako ondasunetatik bereizirik kudeatzea (bost entitate).*
- *Tasa bakarria aplikatzea landa-lurreko ondasunen gaineko kontribuzioa ordainarazteko, legeria indardunetan ezarritakoari jarraituz (bost entitate).*
- *Kontratu-euskarririk gabeko betebeharrak ordaindu beharreko kasuetan, betearazpenaren oinarrietan izapidetzerako prozedura egokia ezartzea, aberaste bidegabearen teoriaren arabera, organo eskudunak onetsi dezan (bost entitate).*

Aurrekontu-egonkortasunari eta finantza-iraunkortasunari dagokionez, entitate guztiak araudiak ezarritako baldintza guztiak bete zituzten, honako kasu hauetan izan ezik: Txulapaingo Udalak ez zuen aurrekontu-egonkortasunaren araua bete, ez eta gastuarena ere, eta, gainera, ez hornitzaileei ez zien informatu ordaintzeko batez besteko epeari buruz; Zangozako Eskualdeko Zerbitzuen Mankomunitateak hornitzaileei ordaintzeko batez besteko epea dela-eta araudiak ezarritako epea gainditu zuen. Corellako eta San Adriango udalen kasuan, ez zen gastuaren araua betetzen, baina kasuko txostenetan aipatzen zen bezala, ez-betetze horren arrazoia koiunturako egoerei zor zitzaizkien; hain zuzen, 2017an konponbidea eman zaien egoerei; halaber, Altsasuko Udalak aurrekontu-egonkortasunaren araua urratzen zuen, baina egitate hori, halaber, 2017ko aurrekontuan zuzendu zen.

Bestalde, Kontuen Ganberak toki sektoreko entitate batzuen 2016ko jardueran eragina zuten sei txosten egin zituen, honako gai hauei buruz:

- Ultzamako biometanizazio planta.
- Udal montepioaren defizitaren banaketa.
- Nafarroako Errege Bardeako Komunitateak egindako ordezkari-tza, bilera, bidaia eta kalte-ordainen gastua.
- 9.000 biztanletik gorako udaletan egindako administrazio-kontratazioa.
- Bera, Viana, Altsasu eta Baztango udalek beren udalerrietako ikastolei egindako ekarpenak.
- Funts publikoekin finantzatzen diren ikastetxe pribatuetako irakaskuntza ez-unibertsitarioa.

V. TOKI SEKTORE PUBLIKOAREN FINANTZA-EGOERA

Toki sektore publikoaren 2016. urteko finantza-egoeraren azterketa Toki Administrazioiko Zuzendaritza Nagusiaren txosteneko lehenengo atalean oinarrituta dago. Txosten honen 2. eranskinean gehitu duguna da. Ondoren, toki entitateen (udalak, kontzejuak, mankomunitateak eta batasun tradizionalak) informazio bateratua ematen dugu:

V.1. DIRU-SARRERAK

Hona toki sektore publikoaren diru-sarreraren aurrekontu-betetzea:

(euroak, milioitan)

Kapitulua	Behin betiko aurreikuspenak	Diru-sarrerak (2016)	Diru-sarrera guztien gainean (%)	Betetakoa (%)	Diru-sarreraren aldea, 2016/2015 (%)
1 Zuzeneko zergak	183,64	195,33	26	106	3
2 Zeharkako zergak	14,50	18,59	2	128	16
3 Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk	150,24	157,08	21	105	2
4 Transferentzia arruntak	309,70	304,57	40	98	2
5 Ondare bidezko diru-sarrerak	45,01	43,73	6	97	-7
Diru-sarrera arruntak	703,09	719,30	94	102	2
6 Inbertsioen besterentzea	15,40	13,39	2	87	38
7 Kapital-transferentziak	55,96	24,97	3	45	2
Kapitaleko diru-sarrerak	71,36	38,36	5	54	12
8 Finantza-aktiboen aldaketa	60,86	1,10	0,2	2	-37
9 Finantza-pasiboen aldaketa	15,68	3,36	0,4	21	-70
Finantza-eragiketetako diru-sarrerak	76,54	4,46	0,6	6	-65
Diru-sarrerak, guztira	850,99	762,12	100	90	1

Diru-sarreraren 2016rako behin betiko aurreikuspenek 850,99 milioi euro egiten dute, eta ehuneko 90eko betetze-maila dute. Diru-sarrera arruntan kasuan aurreikusitakoaren ehuneko 102 bete ziren bitartean, nabarmentzekoa da eragiketa finantzarioetatik eta kapitaletik heldu diren diru-sarreraren betetze txikia; izan ere, ehuneko sei eta ehuneko 54 bete ziren, hurrenez hurren.

2016an, toki sektore publikoaren diru-sarrerak 762,12 milioi egin zuten; horietatik, ehuneko 94 diru-sarrera arruntak izan ziren (transferentziak eta zergak, batez ere). Kapitaleko diru-sarrerak diru-sarrera guztien ehuneko bost dira eta gainerako ehuneko bata finantza-eragiketetatik dator.

2016ko guztizko diru-sarrerak 2015ekoen antzeko mailetan mantendu ziren, igoera txiki batekin, ehuneko batekoa. Diru-sarrera motaren arabera aldea askotarikoa izan zen; hartara, diru-sarrera arruntek eta kapitalekoek ehuneko bi eta 12 egin zuten gora hurrenez hurren, eta finantzen bidezko diru-sarrerak berriz, ehuneko 65 egin zuten behera.

Diru-sarrera guztien ehuneko 87 udalei eta kontzejuei dagozkie, eta gainerako ehuneko 13a, berriz, mankomunitateei eta batasunei.

V.2. GASTUAK

Ondoren sektoreak 2016an izan dituen gastuen laburpen bat ematen dugu:

(euroak, milioitan)

Kapitulua	Behin betiko kredituak	Gastuak 2016	Gastu guztien gainean (%)	Betetakoa (%)	Gastuetako aldea (%) 2016/2015
1. Langile-gastuak	277,68	267,70	37	96	2
2. Ondasun arruntak eta zerbitzuak erostea	286,03	261,43	37	91	1
3. Finantza-gastuak	6,31	3,84	0,5	61	-42
4. Transferentzia arruntak	73,52	66,83	9	91	-5
Gastu arruntak	643,54	599,80	84	93	0,2
5. Kontingentzia funtsa	620,91	0	0	0	-
Kontingentzia funtsa	620,91	0	0	0	-
6. Inbertsio errealak	154,25	71,32	10	46	-2
7. Kapital-transferentziak	11,42	8,32	1	73	26
Kapitaleko gastuak	165,67	79,64	11	48	0,1
8. Finantza-aktiboaren aldea	3,11	0,96	0,1	31	-92
9. Finantza-pasiboaren aldaketak	34,15	33,75	5	99	-22
Finantza-eragiketen gastuak	37,26	34,71	5	93	-37
Gastuak, guztira	847,09	714,15	100	84	-3

2016ko ekitaldirako behin betiko kredituek 847,09 milioi eurokoak izan dira, eta ehuneko 84 betetze-maila izan dute. Gastu arruntek eta finantza-eragiketekin lotutako gastuek ehuneko 93ko betetze-maila izan dute. Aitzitik, kapitaleko gastuen betetze maila behin betiko kredituen ehuneko 48koa izan zen.

Toki sektore publikoko gastuek 2016an 714,15 milioi euro egin zuten eta 2015ekoak baino ehuneko hiru txikiagoak izan ziren; horietatik, nabarmentzekoak dira ondasun arruntetan eta zerbitzuetan egindakoak eta langile-gastuak, zeinek aitortutako gastu guztien ehuneko 37 egiten baitute. Bestetik, inbertsioak gastuen guztizkoaren ehuneko hamar dira.

Hurrengo taulan gastu horien sailkapen funtzionala erakusten dugu (euroak, milakotan):

Funtzioa	Zenbatekoa	Gastu guztiaren gaineko %
Erkidegoaren ongizatea	90.964	13
Zerbitzu orokorrak	85.156	12
Hezkuntza	65.424	9
Etxebizitza eta hirigintza	64.965	9
Gizarte zerbitzuak eta gizarte sustapena	59.033	8
Kultura	54.854	8
Pentsioak	50.787	7
Beste batzuk	242.968	34

Erkidegoaren ongizatea (hondakinak jaso eta tratatzea, argiteria edo garbitasuna, besteak beste) da 2016an toki sektore publikoan gastu handiena, 90,96 milioi eurokoa (guztizkoaren ehuneko 13), eragin zuen eginkizuna; horren ondotik, izaera orokorreko zerbitzuak datoz, eta ehuneko 12 egin zuten, 85,16 milioi euro hain zuzen.

Gastuen ehuneko 87 udalei eta kontzejuei dagozkie, eta gainerako ehuneko 13a, berriz, mankomunitate eta batasunei.

V.3. ADIERAZLEAK ETA MAGNITUDEAK

Hurrengo taulan toki sektore publikoan gastatutako 100 euro bakoitzaren bilakaera eta banaketa erakusten dugu, bai eta haien finantziakzioa ere:

Gastuaren izaera	Zenbatekoa 2015	Zenbatekoa 2016	Finantzabidea	Zenbatekoa 2015	Zenbatekoa 2016
Langileak	36	37	Tributu bidezko diru-sarrerak	47	49
Ondasun arruntak eta zerbitzuak	35	37	Transferentzien bidezko diru-sarrerak	43	43
Transferentzien bidezko gastuak	10	10	Ondare bidezko diru-sarrerak eta beste	9	7
Inbertsio errealak	10	10	Zorduntzea	1	1
Finantza-zama	7	5			
Finantza-aktiboak	2	1			
	100	100		100	100

Ikusten den bezala, ekitaldi batetik bestera dauden aldeak ez dira esanguratsuak; halere, finantza-eragiketekin lotutako gastuek ehuneko hiru egin zuten behera, eta ondasun arruntei eta zerbitzuei dagokienez, aldiz, ehuneko bi gora; diru-sarreretan, berriz, tributu-bidezkoak ehuneko bi handitu ziren, eta kopuru horren ordaina da ondare bidezko diru-sarrerak eta beste batzuk jaitsi egin direla.

Ondoren, toki entitateen finantza-egoeraren hainbat adierazleren bilakaera erakusten da, 2012tik 2016ra:

Adierazleak	2012	2013	2014	2015	2016	Aldea (%) 2016/2012	Aldea (%) 2016/2015
Diru-sarrerak, guztira	785,77	741,93	747,88	751,67	762,12	-3	1
Gastuak, guztira	744,40	724,57	720,77	733,28	714,15	-4	-3
Tributu bidezko diru-sarrerak	336,92	344,39	348,96	359,14	371,00	10	3
Transferentzien bidezko diru-sarrerak	372,84	336,54	336,54	323,03	329,53	-12	2
Funtzionamendu gastuak	567,81	583,27	584,50	592,08	595,97	5	1
Kapital-gastua	120,51	98,9	94,68	79,58	79,64	-34	0,1
Aurrekontu-emaitza ez-finantzarioa	48,42	45,89	56,02	60,46	78,22	62	29
Aurrezki gordina	102,98	100,97	110,40	112,58	123,34	20	10
Finantza-zama	39,31	38,08	39,08	49,89	37,59	-4	-25
Aurrezki garbia	63,67	62,89	71,32	62,69	85,75	35	37
Finantza-zamaren adierazlea	5,86	5,57	5,61	7,08	5,23	-11	-26
Aurrezki gordina / diru-sarrera arruntak (%)	15,35	14,76	15,83	15,98	17,15	-	-
Zorpetze-ahalmena (%)	9,49	9,19	10,22	8,90	11,92	-	-
Zor bizia	400,42	381,92	337,96	301,39	277,19	-31	-8
Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina	132,86	142,27	170,56	191,97	225,73	70	18

Aurreko taulako datuak aztertuta, honako hauek azpimarratu behar ditugu:

- 2015ekin alderatuta, gastuak ehuneko hiru jaitsi dira, eta diru-sarrerak, berriz, ehuneko bat igo. 2012arekiko bilakaerak zeinu bera du gastuei dagokienez, zeren eta ehuneko lau jaitsi baitziren; diru-sarrerak, berriz, ehuneko hiru jaitsi ziren.
- Kapital gastuek 79,64 milioi euro egin zuten; hori da, hain zuzen ere, 2012arekin alderatuz gero gehien jaitsi den gastua: ehuneko 34raino iristen da jaitsiera hori.

- 2016an, toki sektore publikoak 85,75 milioi euroko aurrezki garbia izan zuen, behin funtzionamendu gastuak eta zorraren finantza-zama ordainduta. Aurrezki hori ehuneko 37 eta 35 handiagoa da 2015ean eta 2012an sortutakoa baino, hurrenez hurren.
- Nafarroako toki entitateen 2016ko zor bizia 277,19 milioi eurokoa zen, ehuneko 1,79ko batez besteko interes tasarekin; batez beste 10,61 urte gelditzen da epearen muga-eguna iristeko. 2012ko eta 2015eko datuekin alderatuta, ehuneko 31ko eta zortziko jaitsiera izan dela ikusten dugu.
- Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina —hurrengo ekitaldian gastuei aurre egiteko aurrekontu-aldaketak finantzatzeko erabil daitekeen sortutako baliabideen gaindikina— 225,73 milioikoa izan zen 2016an. 2012ko ekitaldiarekiko eta 2015eko ekitaldiarekiko goranzko joera izan zuen, zeren eta ehuneko 70 eta 18 handitu baitziren, hurrenez hurren.

V.4. AURREKONTU-EGONKORTASUNEN ETA FINANTZA-IRAUNKORTASUNAREN HELBURUAK

Aurrekontu-egonkortasunari eta finantza-iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoari (AEFILO) jarraituz, "Tokiko Administrazio Publikoaren" sektoreak honako arau fiskal hauek bete behar ditu:

- Aurrekontu-egonkortasuna, edo ekitaldiko oreka/finantzaketa-gaitasuna, kontabilitate nazionalen terminoetan neurtua.
- Gastu-araua, hau da, 2015ekoarekin alderatuta sektorearen 2016ko gastu zenbakarrian dagoen aldeak, ezin du gainditu BPGaren hazkundearen erreferentziako tasa. Tasa hori ehuneko 1,8an ezarri zen ekitaldi horretarako.
- Zor publikoaren iraunkortasunak esan nahi du sektorearen zorrak, kontabilitate nazionalen terminoetan, ezin duela gainditu diru-sarrera arrunten ehuneko 110a.
- Merkataritza-zorraren iraunkortasunak esan nahi du hornitzaileei ordaintzeko batez besteko epeak ezin duela gainditu, orokorrean, 30 eguneko muga.

Arlo honetan, Toki Administrazio Zuzendaritza Nagusiak emandako informazioa toki entitateetara eta haien organismo autonomoetara mugatzen da, kontabilitate nazionalaren terminoetan "Nafarroako Toki Administrazio Publikoaren" sektorea berez egituratu gabe. Datu horien arabera, honako hau aipatu behar dugu:

a) Toki sektore publikoak 2016an izan duen finantzaketa-gaitasuna 74,62 milioikoa izan da, eta hori aurreko ekitaldiko baino ehuneko 36 gehiago da; horrekin, beraz, arau fiskala bete da, hurrengo taulan ikus daitekeen bezala:

Finantzaketa-gaitasuna/beharra	Zenbatekoa
Aurrekontuko saldo ez-finantzarioa	78.219.145
Doikuntzak:	
Diru-bilketa ez-seguruko diru-sarrerak	(4.753.279)
Administrazioen arteko transferentziak	1.156.699
2016ko finantziazio-gaitasuna	74.622.565

b) Sektorearen zor bizia 277,19 milioi eurokoa zen 2016ko abenduaren 31n: diru-sarrera arrunten ehuneko 39 da hori. Portzentaje hori legeria indardunean ezarritako ehuneko 110eko mugatik beherakoa da; horrenbestez, arau hori bete egiten da.

c) Ez da informaziorik ematen gastu arauari buruz eta merkataritza-zorra ordaintzeko epeei buruz. Azken arau horri dagokionez, egiaztatu da, Ogasuneko Ministerioaren argitalpenari jarraituz, informazio hori badagoela soilik Nafarroako 59 toki entitateen kasuan; horren arabera, ordaintzeko batez besteko epea, ekitaldiko batez bestekoaren arabera, 18,81 eguneko da; hau da, ezarrita dagoen 30 eguneko mugatik beherakoa.

VI. KONTRATAZIO ADMINISTRATIBOA

Atal honetan, toki entitateek eta haien menpeko enteek 2016an adjudikatutako kontratuak aztertzen ditugu, Kontratazio Publikorako Batzordeak kudeatutako Kontratuen Erregistroan dagoen informazioaren arabera.

Hona toki entitateek esleitutako kontratuen oinarrizko datuak:

Kontratu-mota	Udalak		Kontzejuak		Batasunak		Mankomunitateak		Guztira	
	Kopurua	Zenbatekoa zenbatekoa	Zenbat	Adjudikazioaren zenbatekoa	Zenbat	Adjudikazioaren zenbatekoa	Zenbat	Adjudikazioaren zenbatekoa	Zenbat	Adjudikazioaren zenbatekoa
Laguntza	186	12.810.632	2	36.700	2	6.107	6	813.646	196	13.667.085
Obrak	132	14.437.630	2	339.800	3	50.214	6	3.265.080	143	18.092.724
Hornidura	48	3.371.130	-	-	-	-	12	1.622.511	60	4.993.641
Zerbitzu-emakidak	19	2.332.298	-	-	-	-	-	-	19	2.332.298
Obra-emakida	1	8.500	-	-	-	-	-	-	1	8.500
Guztira	386	32.960.190	4	376.500	5	56.231	24	5.701.237	419	39.094.248

2016an, toki entitateek guztira 39,09 milioi esleitu zituzten 419 kontratutan. Kontratuen ehuneko 47 laguntzakoak izan ziren eta adjudikatutako guztizko zenbatekoaren ehuneko 35 egiten dute. Obra-kontratuek kontratu guztien ehuneko 34 egiten dute; halere, haien zenbatekoak, kasu horretan, guztizko zenbatekoaren ehuneko 46 egiten du.

2016an, toki entitateen menpekoak diren enteek honako kontratu hauek adjudikatu zituzten:

Kontratu-mota	Erakunde autonomoak		Sozietate publikoak		Guztira	
	Zenbat	Adjudikazioaren zenbatekoa	Zenbat	Adjudikazioaren zenbatekoa	Zenbat	Adjudikazioaren zenbatekoa
Laguntza	2	152.868	25	6.586.983	27	6.739.851
Hornidura	1	8.035	26	2.202.513	27	2.210.548
Zerbitzu-emakidak	1	260	-	-	1	260
Obrak	-	-	12	3.945.748	12	3.945.748
Guztira	4	161.163	63	12.735.244	67	12.896.407

Nabarmentzekoa da ezen 2016an zeuden 67 kontratuetatik, ehuneko 94 sozietate publikoek adjudikatu zituztela. 12,74 milioi euro egiten dute, eta guztizkoaren ehuneko 99 dira. Gainerako kontratuak erakunde autonomoek adjudikatu zituzten.

Laburbilduz, 2016an, toki entee, haien erakunde autonomoek eta sozietate publikoek 486 kontratu esleitu zituzten, eta kontratu horiek 51,99 milioi eurokoak izan ziren, guztira.

Hona toki entitateek eta haien mendeko enteek egindako kontratuetan balliatutako adjudikazio-prozedura eta -irizpideak:

	Irekia		Publizitaterik gabe negoziatua			Negoziatua publizitatearekin	Murriztua	Proiektuen lehiaketa
	Eskaintzarik onena	Preziorik merkeena	Eskaintzarik onena	Preziorik merkeena	Daturik ez	Eskaintzarik onena	Eskaintzarik onena	Eskaintzarik onena
Laguntza	128	11	57	23	1	-	2	1
Obrak	53	2	51	48	-	1	-	-
Hornidura	49	12	17	9	-	-	-	-
Zerbitzu-emakidak	19	1	-	-	-	-	-	-
Herri-lanaren emakida	-	1	-	-	-	-	-	-
Guztira	249	27	125	80	1	1	2	1

Kontratuen ehuneko 57 prozedura irekiaren bidez esleitu zen; kasuen ehuneko 90ean eskaintzarik aldekoenaren irizpidea baliatu zen, eta gainerako ehuneko hamarrean, berriz, preziorik merkeenarena.

Halaber, kontratu guztien ehuneko 42 publizitaterik gabeko prozedura negoziatuaren bidez esleitu zen; kasuen ehuneko 61ean eskaintzarik aldekoenaren irizpidea baliatu zen, eta gainerakoetan, berriz, preziorik merkeenarena.

Azkenik, esleitutako 486 kontratuetatik, zortzi obra-kontratu 600.000 eurotik gorakoak ziren; hiru hornidura-kontratu 400.000 eurotik gorako prezioan adjudikatu ziren; eta 31 laguntza-kontratu eta bost emakida-kontratu 150.000 eurotik gorakoak ziren. Hona zenbatekoari erreparatuz gero garrantzitsuenak diren kontratu horien esleipenaren zenbatekoa:

Kontratu-mota	Zenbat	Adjudikazioaren zenbatekoa
Laguntza	31	12.529.927
Obrak	8	7.325.087
Zerbitzuen emakida	5	1.952.861
Hornidura	3	1.458.905
Guztira	47	23.266.780

VII. NAFARROAKO TOKI ENTITATEETAKO KONTU-HARTZAILEEK 2016AN EGINDAKO ERAGOZPEN-OHARRAK

Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko Lege Organikoaren esparruan, Toki Administrazio eta Iraunkortasunari buruzko 27/2013 Legearen bigarren artikulua aldatu egin zuen, besteak beste, Toki Ogasunei buruzko Legearen 218. artikulua, eta ezarri zuen organo kontu-hartzaileak urtero Kontuen Epaitegiari igorriko dizkiola egindako eragozpen-oharren aurkakoak diren Udaltzatuko buruaren eta Osoko Bilkuraren ebazpen eta erabaki guztiak.

27/2013 Legeak, halaber, bigarren xedapen gehigarri bat erantsi zuen, non Foru Komunitateari arlo honetan aplikatzekoa zaion araubidea xedatzen baitu; hartan ezartzen da ezen, oinarriko araudia bezela, Nafarroako toki entitateetako kontu-hartzailetzako langileek informazio hori Foru Komunitateko administrazioari eta Kontuen Ganberari igorri behar diotela.

Gai honi buruzko informazioa lortzeko, Kontuen Ganberak Nafarroako 272 udali eta 79 mankomunitate eta batasun tradizionalak eskaera bat igorri zien posta elektronikoz, 2016. urtean egindako eragozpen-oharrei buruz informazioa ziezaguten. Hasierako eskaera hori egin ondoren, eskaera bi aldiz berretsi genuen; geroztik, telefono-deiak egin genizkien erantzunik eman ez ziguten entitateei.

Azkenik, udal guztiak gure eskaerari erantzun zioten, Eslabako Udala izan ezik; mankomunitate eta batasunen kasuan, berriz, 79 entitateetatik 77k eskatutako informazioa igorri ziguten: Los Arcosko Eskualdeko Oinarriko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatearen eta San Frantzisko Xabierkoa Egoitzaren Mankomunitatearen erantzunak falta dira. Txosten honen II. epigrafean aipatu dugun bezala, horrek muga bat dakarkio gure lanaren norainokoari.

Ondoren ematen ditugun datuak toki entitate horiengandik jasotako informazioan oinarritzen dira.

- 272 udaletatik, 25ek 239 eragozpen-ohar aurkeztu zituzten; eragozpen-ohar horiek 2,60 milioi euroko eragina zuten guztira, baina eragozpen-ohar horietatik 32an ez zen diru-zenbatekorik ematen, beren ezaugarriak tarteko. Mankomunitateen kasuan, bik baizik ez zuten eragozpen-oharrik egin, eta bi horietako batean ez zen diru-zenbatekorik aipatzen. Datu hauek aurreko urteetakoekin alderatuta, honako taula hau egin dugu:

	2014	2015	2016
Eragozpen-oharrak aurkeztu dituzten entitateen kopurua	30	41	27
Zenbat eragozpen-ohar, guztira	161	171	241
Diru-zenbateko bat jasotzen duten eragozpen-oharrak	128	134	206
Eragozpen-oharretan zenbatetsitako diru-kopurua	979.607	1.271.290	2.598.669
Diru-zenbatekorik jasotzen ez duten eragozpen-oharrak	33	37	35

Bai eragozpen-oharren kopuruak, bai haietan zenbatetsitako diru-kopuruak goranzko joera dute; hartara, 2016an, zenbateko horiek ehuneko 41 eta ehuneko 104 handitu ziren 2015ekoekin alderatuta.

- Eragina zuten diru-kopurua zenbatetsen zituzten 2016ko eragozpen-oharrak kontuan hartuta, honako laburpen hau egin dugu:

Diru-zenbatekoaren tartea	Eragozpen-oharren kopurua	Zenbatetsi den diru-kopurua, guztira	Batez besteko diru-kopurua
≤ 1.000 euro	74	21.420	289
1.001-5.000 euro	51	142.538	2.795
5.001-10.000 euro	24	176.497	7.354
10.001-20.000 euro	22	331.448	15.066
> 20.001 euro	35	1.926.766	55.050
Guztira	206	2.598.669	12.615

Eragozpen-oharren ehuneko 61erako zenbatetsi den diru-kopurua 5.000 eurotik beherakoa da; ehuneko 22, berriz, 5.001-20.000 euroko tartean dago, eta gainerako ehuneko 17a, azkenik, 20.001 eurotik gorakoa da.

- 2016an Kontu-hartzailetzako langileen eragozpen-ohar horiek eragin zituzten arrazoiak honako hauek dira, 2015ekoekin alderatuta:

	2015			2016		
	Eragozpen oharren kopurua		Zenbatetsitako diru-kopurua	Eragozpen oharren kopurua		Zenbatetsitako diru-kopurua
	Diru-kopururik ez	Diru- kopuruarekin		Diru- kopururik ez	Diru- kopuruarekin	
Kontratazio-prozedurako akatsak	16	39	629.180	6	86	1.815.970
Behar adinako krediturik gabeko gastuak	2	27	203.169	9	71	135.808
Langileak	7	18	41.861	9	17	57.795
Diru-laguntzak justifikatzeko akatsak, finantzaketarik gabe, lankidetzaren hitzarmena	3	18	202.954	5	13	133.677
Besterik	9	19	187.754	4	16	452.117
Fakturarik gabeko gastuak	0	13	6.371	2	3	3.302
Guztira	37	134	1.271.290	35	206	2.598.669

Ikusten den bezala, 2016ko eragozpen-oharren ehuneko 38 kontratazio-prozedurako akatsak zirela eta aurkeztu ziren, eta horiei lotutako diru-kopurua guztizkoaren ehuneko 70 izan zen. 2015ean ere horixe izan zen arrazoi ohikoena, eta eragozpen-oharren ehuneko 32 eta urte horretan zenbatetsitako diru-kopuruaren ehuneko 49 egin zuen. Zehazki, 2016an akats horiek lotuta egon dira, funtsean, honako hauekin: zerbitzuak ematea haietarako kontratuaren indarraldia amaituta dagoenean edo kontraturik eduki gabe; lizitazioan kontratu osorako zenbatetsitako balioa kontuan ez hartzea, eta herriko jaiekin lotutako zenbait jardueren kontraprestazioa.

Eragozpen-oharrak aurkezteko 2016ko bigarren arrazoi ohikoena behar adina kreditu eduki gabe egindako gastuei dagokie: eragozpen-oharren ehuneko 34 eragin zuen, eta guztizko diru-kopuruaren ehuneko bost da.

VIII. 9.000 BIZTANLETIK GORAKO UDALEN EGOERA EKONOMIKO FINANTZARIOAREN ANALISIA

Kontuen Ganberak IV. epigrafean aipatzen diren eta 5.000-9.000 biztanleko tartean kokatuta dauden toki entitateen 2016ko jardura ekonomiko-finantzarioa fiskalizatu zuen, eta Iruñeko eta Tuterako udalen auditoretza egiten jarraitu zuen. 2016an, 9.000 biztanletik gorako udalen egoera ekonomiko-finantzarioari buruzko azterketa egin dugu, Toki Administrazioako Zuzendaritza Nagusiak igorritako informazioa aintzat hartuz, eta ez dugu hemen aipatutako kopuruaren auditoretza egin, Iruñeko eta Tuterako udalen kasuetan izan ezik.

Ondoren, aztertutako udaletan 2016ko adierazle batzuek ematen dituzten balioak erakusten ditugu:

	Antsoain	Aranguren	Barañain	Berriozar	Burlata	Eguesibar	Lizarra	Iruña	Tatalla	Tutera	Atarrabia	Zizur Nagusia
Diru-sarrerak, guztira	7.745.089	9.481.600	15.249.395	5.979.512	12.618.017	11.652.519	11.241.968	209.813.444	10.751.327	38.210.104	9.020.599	10.198.685
Gastuak, guztira	7.140.834	10.199.031	14.261.812	5.720.596	12.672.198	10.410.440	10.846.991	196.241.785	10.635.710	35.733.216	8.362.606	10.468.901
Diru-sarrera aruntak	7.744.099	9.003.586	15.238.321	5.966.823	12.534.693	10.722.306	11.158.957	195.316.113	9.798.305	37.994.633	8.261.666	10.185.967
Funtzionamendu gastuak	6.940.798	7.746.663	13.371.333	5.479.233	12.005.924	9.526.492	9.331.396	165.158.385	8.843.962	30.616.471	7.220.169	9.932.756
Aurrezki gordina	803.301	1.256.923	1.866.987	487.590	528.769	1.195.815	1.827.561	30.157.728	954.283	7.378.162	1.041.497	253.212
Finantza-zama	127.281	0	282.953	390	258.414	236	715.491	9.309.403	650.260	2.913.736	409.320	0
Aurrezki garbia	676.020	1.256.923	1.584.034	487.200	270.355	1.195.579	1.112.070	20.848.325	303.490	4.464.425	632.177	253.212
Kapitaleko diru-sarrerak	1.000	478.014	11.075	12.715	72.097	42.628	83.011	14.334.569	603.021	215.472	82.134	12.717
Kapitaleko gastuak	72.755	2.452.368	607.526	236.993	403.159	723.701	1.510.104	21.558.438	1.140.908	2.203.009	733.117	536.145
Aurrekontu-emaiza doituak	609.816	-224.422	1.434.038	269.986	471.858	1.370.500	1.552.346	20.457.573	438.960	3.118.090	320.570	295.863
Finantza-zamaren adierazlea	1,64	-	1,86	0,01	2,06	0,001	6,41	4,77	6,64	7,80	4,95	-
Aurrezki gordina/diru-sarrera aruntak (%)	10,37	13,96	12,25	8,17	4,22	11,15	16,38	15,44	9,74	19,03	12,61	2,49
Zorpetze-ahalmena (%)	8,73	13,96	10,40	8	0,83	16,17	6,03	10,67	3	11,23	7,66	2,49
Biztanle bakoitzeko zorra	80,53	0	52,96	0	2,79	0	384,98	440	391,45	649	296,29	0
Gastu orokorretako diruzaintzako gerakina	1.766.416	444.226	7.333.006	1.851.054	-4.084.590	2.377.283	4.530.805	23.978.358	261.525	3.326.701	576.742	2.447.168
Finantzatzeko gaitasuna/(beharra), AEFILO	723.417	(683.756)	1.090.170	375.297	(138.134)	1.239.919	1.416.510	20.014.993	186.979	4.680.447	234.365	(80.796)
Ordaintzeko batez besteko aldia (AEFILO)	-14,92	2,33	Daturik ez	-13,75	10,82	-7,96	-13,15	-0,78	Daturik ez	-11,26	-8,49	-16,96

Aurreko taulako datuak aztertuta, honako alderdi hauek azpimarratu behar ditugu:

- Udal guztietan, diru-sarrera arruntak nahikoak dira funtzionamendu gastuei aurre egiteko, eta balio positiboak dituzten aurrezki gordinak ageri dituzte; nahikotasun horri eusten zaio baita finantza-zama deskontatuta ere, zerotik gorako balioak ematen dituzten aurrezki gordinekin.

- Aurrekontu-emitza doitua positiboa da gastu guztietan, Aranguren Ibarreko Udalaren kasuan izan ezik, hartan 224.422 euro negatiboa baita.

- Aranguren, Berriozar, Eguesibar eta Zizur Nagusiko udalek zorrik ez dute; Burlatako Udalaren kasuan, ia zorrik ez dago, eta gainerakoetan, biztanle bakoitzeko zorra 53 eta 649 euro artekoa da.

- Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina positiboa da kasu guztietan, Burlatako Udalaren kasuan izan ezik, horretan 4,08 miloi euroko balio negatiboa ageri baita.

- Udalek finantzaketa-gaitasuna badute AEFILOren eraginetarako, Aranguren Ibarreko, Burlatako eta Zizur Nagusiko udalen kasuan izan ezik.

- Hornitzaileei ordaintzeko batez besteko aldia, AEFILOren irizpideen arabera, ez da aztertutako udaletan ezarritako mugatik gorakoa; halere, Barañaingo eta Tafallako udalen kasuan horri buruzko datuak ez dago.

Azken batean, oro har, udal horien 2016ko egoera ekonomiko-finantzarioa ona zen; diru-sarrerak nahikoak izan ziren gastu arruntei aurre egiteko, eta behar adina baliabide bazeuden ondorengo ekitaldietan gastuei ekiteko, zeren eta gastu orokorretarako diruzaintzako gerakinek, gutxi-asko, balio positiboak baitzeuzkaten. Nabarmentzekoa da, gainera, zorrik ez dagoela, edo, dagoenean, arrazoizkoa dela.

IX. KONKLUSIOAK ETA GOMENDIOAK

Honako hauek dira 2016an toki sektore publikoak izan duen antolamenduari, fiskalizazioari eta egoera finantzarioari buruzko ondorio nagusiak:

- Toki sektore publikoa 701 toki entitatek osatzen dute: 272 udal, 346 kontzeju, 63 mankomunitate eta 20 udal-batasun. Toki ente horiek 127 menpeko ente sortu dituzte zerbitzuak emateko, eta 15 partzuergotan parte hartzen dute.

Bere horretan dirau Nafarroako udalen egungo plantaren arrazionalizazio faltaren arazoak, Ganbera honek behin eta berriz adierazi duenak, bai udalerrietako populazioaren dimentsio txikiarenak ere; alderdi horiek eragina dute bai baliabideen zuzkiduran, bai eskumenak kudeatzeko egitura administratibo egokia eta nahikoa falta izatean ere, eta zaildu egiten du zerbitzu publiko efizienteak eta kalitatezkoak ematea.

Horri dagokionez, gaur egun, Parlamentuak onesteko du Nafarroako Toki Administrazioaren Erreformarako Foru Legearen proiektua.

- Araudian ezarritako epean kontuak ematearen portzentajea ehuneko 59 ingurukoa da udalen kasuan eta ehuneko 53koa, berriz, kontzejuen kasuan.

- 2016an, Iruñeko eta Tuterako udalez gainera, 5.000 eta 8.000 biztanle arteko zortzi udal fiskalizatu ziren, bai eta mankomunitate bat ere.

Egindako fiskalizazioetan detektatu ziren gabezia nagusiak inbentario baloratu eta gaurkotua ez egoteari buruzkoak dira, bai eta kasuko kontratazio-espediterearen izapidetzea egin gabe edo kontratuaren indarraldia amaituta gastuak egiteari buruzkoak ere.

Halaber, toki sektoreko entitateen 2016ko jardueran eragina zuten sei txosten egin ziren, hainbat alderdiri buruzkoak (kontratazio administratiboa, udal montepioa, funts publikoekin finantzatzen diren ikastetxe pribatuetakoa irakaskuntza ez-unibertsitarioa eta abar).

- Egoera finantzario bateratuari dagokionez, 2016an diru-sarrerak ehuneko bat igo ziren 2015ekoekin alderatuta; eta gastuak ehuneko hiru jaitsi ziren. 2012ko datuekin alderatuz gero, diru-sarrerak ehuneko hiru eta gastuen ehuneko lau egin zuten behera.

Aurrekontuko gastu eta diru-sarrera garrantzitsuenen osaerari dagokionez, funtzionamendu-gastuak 595,97 milioi eurora iritsi ziren; hau da, 2012an baino ehuneko bost eta 2015ekoak baino ehuneko bat handiagoak dira. Bestetik, tributu bidezko diru-sarrerak 371 milioira iritsi ziren, eta ehuneko hamar eta ehuneko hiru egin zuten gora 2012koen eta 2015ekoen aldean.

Toki sektore publikoak 78,22 milioi euroko emaitza ez-finantzarioa eta 85,75 milioiko aurrezki garbia lortu zituen, bai eta gastu orokorretarako 225.73 milioiko diruzaintza-gerakina ere.

2016ko zor bizia 277,19 milioi eurokoa zen, eta 2012kotik ehuneko 31 jaitsia zen; toki enteek ehuneko 11,92 zorpetze-ahalmeneko portzentajea zuten.

Gainera, 74,62 milioi euroko finantza-ahalmena lortu zuen eta zor bizia diru-sarrera arrunten ehuneko 39 egiten zuen, legez ezarritako ehuneko 110eko mugaren azpitik.

Azken batean, toki sektore publikoaren egoera ekonomikoa saneatua da, eta adierazle ekonomiko-finantzario guztiek aldeko bilakaera erakusten dute; halere, gastu ez finantzarioak egiteko eta zorpetzeko muga batzuk badaude, finantza-egonkortasuneko eta -iraunkortasuneko helburuek ezarritakoak. Toki sektore publikoa, bere osotasunean, helburu horiek bete egin zituen 2016ko ekitaldian.

- Toki entitateek eta haren menpeko enteek 2016an, guztira, 51,99 milioi euro egiten duten 486 kontratu adjudikatu zituzten; horietatik, ehuneko 46 laguntza-kontratuei dagozkie (aipatutako kopuru osoaren ehuneko 39), ehuneko 32 obra-kontratuak dira (guztizko kopuruaren ehuneko 42) eta ehuneko 18 horniduretara bideratu ziren (guztizko kopuruaren ehuneko 14).

- 2016an, toki entitateetako kontu-hartzaitzako langileek 241 eragozpen-ohar egin zituzten; horietatik guztietatik, 206k diru-zenbateko bat zuten. Zenbateko horiek, guztira, 2,60 milioi euro egiten zuten, eta haien batez besteko zenbatekoa 12.615 eurokoa zen.

Eragozpen-ohar horiek eragin zituzten arrazoi nagusiak honako hauek izan ziren: kontratazio-prozedurako akatsak eta gastuak behar adina kreditua eduki gabe ordaintzea.

- 9.000 biztanletik gorako populazioa duten udalen 2016ko egoera ekonomiko-finantzarioari buruzko azterketatik, ondoriozta dezakegu ezen, oro har, egoera saneatua zela, eta hala aurrezki gordinak nola aurrezki garbiak eta gastu orokorretarako diruzaintzako gerakinak balio positiboak zituztela. Gainera, 2016ko abenduaren 31n edo zor bizirik ez zegoen, edo arrazoizko balioetan zegoen.

- Toki ogasunei buruzko erregulazioak berrikuspen sakona behar du, aurrekontuko eta kontabilitateko araubideari, barne kontroleko sistemari eta finantzaketa-ereduari dagokienez.

Era berean, Nafarroako tokiko kontabilitatea Kontabilitate Publikoko Plan Orokorraren oinarriaren arabera araututa dago, 1990eko uztailaren 17ko Ministerio Aginduaren bidez toki-administrazioarentzat egindako egokitzearen arabera. Ez da araurik eman toki entitatearen eta haren menpeko enteen kontabilitatearen egoera-orriak bateratzeari buruz.

Arlo hau dela eta egin den azken eguneratzea 2015ekoa da, toki entitateen aurrekontu-egitura berria onetsi zenekoa. Egitura berri hori araubide komuneko toki entitateek aplikatutakoari egokitzen zaio.

Honakoak dira Ganbera honek Foru Komunitateko Administrazioari eta Parlamentuari egiten dizkion gomendioak:

- *Nafarroako Toki Administrazioa arrazionalizatzeko eta berregituratzeko beharrezkoak diren neurri legegileak eta administratiboak lehentasunez eta premiaz hartzeko hasitako prozesuak amaitzea. Helburua da toki entitateek beren zerbitzuak efizientziaz, ekonomiaz, eraginkortasunez eta kalitatez eman ditzatela eta helburu horretarako behar besteko giza baliabideak eta baliabide finantzarioak izan ditzatela.*

- *Tokiko kontabilitatea urgentziaz berritzea eta 2010eko Kontabilitate Publikorako Plan Orokor indardunera egokitzea*

- *Toki entitateen eta horien menpeko enteen kontabilitateko egoera-orriak bateratzeko metodologiari buruzko arauak taxutzea, toki sektore publiko osoak egindako jardueraren erabateko ikuspegia emateko helburuarekin.*

- *Tokiko zerbitzuen kostuak eta kudeaketari buruzko adierazleak lortzeko metodologia osatzea.*

- *Toki entitateentzat diseinatutako barne kontroleko ereduaz aztertzea, esparru guztietako betekizunei aurre egin ahal izateko.*

- *Toki ogasunen esparru berri bat onestea, hartan jasotzeko toki entitateei aplikatu dakizkiela araudiaren betekizun eta eskakizunak.*

- *Behar diren araudia eta prozedurak ezartzea Foru Administrazioak bete behar duen tutoretza finantzarioa bete ahal dadin, Foru Komunitateko toki entitateei Aurrekontu-egonkortasunari eta Finantza-iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoa aplikatzeari dagokionez.*

- *Toki entitateek kontuak emateari eta haien edukiari buruzko informazioa Toki Administrazioiko departamentu eskudunaren web-orrian osatzea, Gardentasunari buruzko Legea betetze aldera.*

- *Toki entitateen erregistroa amaitzea sozietate publikoei eta tokiko fundazioei buruzko informazioarekin.*

- *Toki sektore publikoaren finantza-egoerari buruzko txostena, Nafarroako Gobernuak egindakoa, osatzea sozietate publikoei, fundazioei eta toki partzuergoei buruzko informazioarekin.*

- *Toki entitateek kontuak emateko duten legezko betebeharra betetzen dela bermatzeko tresnak sendotzea, araudian ezarritako epean.*

- *Langileen plantilla organikoaren eredu bat egitea, zeinak argitasunez eta zehaztasunez jasoko baititu dokumentu horrek bete behar dituen baldintzak eta eduki behar duen informazioa; eredu horrek, halaber, aukera emanen du toki entitateek informazio-betekizunak bete ditzaten.*

Toki entitateentzako aholkuak:

- *Egungo arau-testuinguruan, pixkanaka gutxitzea, deialdi egokien bitartez, toki entitateen langileengan gertatzen den behin-behinekotasun maila handia.*
- *Udal-ondasun eta -eskubide guztien inbentario balioztatua eta eguneratua ezartzeko prozesua osatzea, eta hura ibilgetuaren kontuekin lotzea.*
- *Udalaren barne kontrola egitea, aplikatzekoa den legerian ezarritako hedapenarekin, menpeko enteen kudeaketa ekonomikoaren gaineko kontrolari dagokionez, bere eginkizun hirukoitzaren arabera: kontu-hartzailletza, finantza-kontrola eta eraginkortasunaren kontrola.*
- *Lurzoruaren udal ondarearen erregistroa eta inbentarioa sortzea, bai eta hirigintza-hitzarmenen gaineko erregistroa ere.*
- *Toki entitateek beren burua antolatzeko ahalmena erabiliz, tokiko zerbitzu publikoak eraginkortasunez, ekonomiaz eta efizientziaz kudeatzeko antolamendu-egitura arrazoizkoena diseinatzea.*
- *Zerbitzu publikoen kostuen metodologia ezartzen jarraitzea eta erabakiak hartzeko kudeaketa-adierazle baliagarriak definitzea.*
- *Aurrekontua eta kontu orokorra ezarritako epeetan onestea.*
- *Balorazio-ponentzietarako epea gaurkotzea.*

Txosten hau, araudi indardunak ezarritako izapideak bete ondoren, auditore Karen Moreno Orduña andreak proposatuta egin da, bera izan baita lan honen arduraduna.

Iruñean, 2018ko azaroaren 27an

Lehendakaria, Asunción Olaechea Estanga

1. ERANSKINA TOKI ENTITATEEI 2016ko EKITALDIAN APLIKATZEKO ZAIEN ARAUDIA

a) Toki administrazioa eta araubidea

- 6/1990 Foru Legea, uztailaren 2koa, Nafarroako Toki Administrazioari buruzkoa.
- 7/1985 Foru Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubideko Oinarriak arautzen dituena.
- 19/2013 Legea, abenduaren 9koa, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzkoa.
- 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa.
- 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzkoa.
- 48/2015 Legea, urriaren 29koa, 2016rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzkoa.

b) Araubide ekonomikoa, aurrekontukoa eta kontabilitatekoa

- 2/1995 Foru Legea, martxoaren 10ekoa, Nafarroako toki ogasunei buruzkoa.
- 7/1996 Foru Legea, maiatzaren 28koa, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren Tarifei eta Jarraibideei buruzkoa.
 - 270/1998 Foru Dekretua, 271/1998 Foru Dekretua, 272/1998 Foru Dekretua eta 273/1998 Foru Dekretua, irailaren 21ekoak denak, aurrekontuei eta gastu publikoari, aurrekontuen egiturari, Nafarroako Toki Administrazioarentzat Kontabilitate Orokorreko Instrukzioari eta Kontabilitate Bakunari dagokiena, hurrenez hurren.
- 234/2015 Foru Dekretua, irailaren 23koa, Nafarroako toki entitateen aurrekontu egitura onesten duena.
 - Kontabilitate publikoaren plan orokorra, toki-administrazioari egokitua, Ekonomia eta Ogasun Ministerioak 1990eko uztailaren 17ko aginduz onetsitakoa. (272/1998 FD 425 Araua, Kontularitzako Instrukzio orokorra).
- 12/2006 Foru Legea, azaroaren 21ekoa, Nafarroako Lurralde Aberastasunaren Erregistroari eta Katastroei buruzkoa.
- 3/2012 Foru Legea, martxoaren 14koa, 2009-2012 Eperako Toki Inbertsioen Planari buruzko urriaren 24ko 16/2008 Foru Legea aldatu eta haren indarraldia luzatzen duena.
- 21/2014 Foru Legea, azaroaren 12koa, toki ogasunek transferentzia arrunten bidez Nafarroako tributuetan parte hartzeko duten funtsaren zenbatekoa eta banaketa 2015eko eta 2016ko aurrekontu-ekitaldietarako ezartzen dituena.
 - 24/2015 Foru Legea, abenduaren 28koa, ondoko foru lege hau aldatzekoa: 21/2014 Foru Legea, azaroaren 12koa, toki ogasunek transferentzia arrunten bidez Nafarroako tributuetan parte hartzeko duten funtsaren zenbatekoa eta banaketa formula 2015eko eta 2016ko aurrekontu-ekitaldietarako ezartzen dituena.
- 28/2014 Foru Legea, abenduaren 24koa, Tributu-neurriei buruzkoa
- 1/2016 Foru Legea, urtarrilaren 29koa, 2016rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzkoa.
- 3/2016 Foru Legea, martxoaren 1ekoa, toki inbertsioetarako indarreko plana antolatu eta sustatzeko neurriei buruzkoa.
- 18/2016 Foru Legea, abenduaren 13koa, 2017-2019 aldirako Toki Inbertsioen Plana arautzen duena.
- 21/2016 Foru Legea, abenduaren 21ekoa, toki ogasunek transferentzia arrunten bidez Nafarroako tributuetan parte hartzeko duten funtsaren zenbatekoa eta banaketa 2017ko aurrekontu-ekitaldirako ezartzen dituena.

- 24/2016 Foru Legea, abenduaren 28koa, 2017rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzkoa.
- 29/2016 Foru Legea, abenduaren 28koa, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aldatzen duena.
- 48/2015 Legea, urriaren 29koa, 2016rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzkoa.

c) Aurrekontu-egonkortasuna eta finantza-iraunkortasuna

- 2/2012 Lege Organikoa, apirilaren 27koa, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzkoa (irailaren 28ko 4/2012 Lege Organikoaz aldatu zen)
- 6/2015 Lege Organikoa, ekainaren 12koa, ondoko hauek aldatzen dituena: irailaren 22ko 8/1980 Lege Organikoa, Autonomia Erkidegoen Finantzaketari buruzkoa, eta apirilaren 27ko 2/2012 Lege organikoa, Aurrekontu-egonkortasunari eta Finantza-iraunkortasunari buruzkoa.
- 9/2013 Lege Organikoa, abenduaren 20koa, Sektore publikoan merkataritza-zorra kontrolatzeari buruzkoa.
- 27/2012 Foru Legea, abenduaren 28koa, zeinaren bidez Nafarroako Foru Komunitatean neurriak hartzen baitira aurrekontu-oreka bermatzeko eta lehiakortasuna sustatzeko.
- 25/2013 Legea, abenduaren 27koa, Sektore publikoan faktura elektronikoa bultzatzeari eta fakturen kontabilitate-erregistroa sortzeari buruzkoa.
- 27/2013 Legea, abenduaren 27koa, Toki Administrazioaren Arrazionalizazio eta Iraunkortasunari buruzkoa.
- 8/2013 Errege Lege-dekretua, ekainaren 28koa, Administrazio publikoen berankortasunaren aurkako neurri urgenteei eta finantza-arazoak dituzten toki entitateei laguntzeari buruzkoa.
- 17/2014 Errege Lege-dekretua, abenduaren 26koa, Autonomia-erkidegoen eta toki-erakundeen finantza-iraunkortasunerako neurriei eta bestelako neurri ekonomikoei buruzkoa.
- HAP/2105/2012 Agindua, urriaren 1koa, Aurrekontu-egonkortasun eta Finantza-iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoan informazioa emateko aurreikusitako betebeharrak garatzekoa.
- 2015eko uztailaren 31ko Ebazpena, Altxorraren eta Finantza Politikaren Idazkaritza Nagusiarena, zeinaren bidez definitzen baita zorpetze-eragiketei eta autonomia erkidegoetatik eta toki entitateetatik heldutakoei aplikatzekoa zaien zuhurtasun finantzarioa.
- 2016ko irailaren 16ko Ebazpena, Altxorraren eta Finantza Politikaren Idazkaritza Nagusiarena, zeinaren bidez definitzen baita zorpetze-eragiketei eta autonomia erkidegoetatik eta toki entitateetatik heldutakoei aplikatzekoa zaien zuhurtasun finantzarioa.

d) Kontratazio administratiboa

- 6/2006 Foru Legea, ekainaren 9koa, Kontratu Publikoei buruzkoa, otsailaren 14ko 1/2007 Foru Legean zehaztutako berezitasunekin.
- 1/2015 Foru Legea, urtarrilaren 22koa, Kontratu Publikoei buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legea aldatzen duena klausula administratiboan agerian klausula sozialak sartzeko.
- 3/2016 Foru Dekretua, urtarrilaren 27koa, Kontratuei buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legearen Europar Batasuneko atalaseak eguneratzen dituena.

e) Langileak

- 251/1993 Legegintzako Foru Dekretua, abuztuaren 30ekoa, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuaren testu bategina onesten duena, bai eta haiek garatzeko xedapenak ere.

- 26/2012 Foru Legea, abenduaren 26koa, zeinaren bidez aldatzen baita ekainaren 21eko 13/2012 Foru Legea, Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen arloan presako zenbait neurri hartzeari buruzkoa.

- 12/2015 Foru Legea, apirilaren 10ekoa, zeinaren bitartez Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen arloko presako neurri jakin batzuen indarraldia 2015. urtera luzatzen baita eta langile horien montepioetako klase pasiboen pentsioak eguneratzen baitira.

- 13/2015 Foru Legea, apirilaren 10ekoa, Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Estatutuaren testu bategina aldatzen duena, desgaitasuna dutenek enplegu publikoa eskuratzeari dagokionez.

- 15/2015 Foru Legea, apirilaren 10ekoa, Nafarroako Polizia buruzko martxoaren 23ko 8/2007 Foru Legea aldatzen duena

- 25/2015 Foru Legea, abenduaren 28koa, Nafarroako Poliziei buruzko martxoaren 23ko 8/2007 Foru Legea aldatzen duen apirilaren 10eko 15/2015 Foru Legea aldatzekoa.

- 4/2015 Errege Lege-dekretua, martxoaren 22koa, Lan arloan enplegurako lanbide heziketako sistemaren urgentziazko erreformarakoa.

f) Hirigintza

- 35/2002 Foru Legea, abenduaren 20koa, lurralde antolamenduari eta hirigintzari buruzkoa.

- 5/2015 Foru Legea, martxoaren 5ekoa, Nafarroan hirigintza iraunkorra, hiri-berrikuntza eta hirigintza-jarduera laguntzeko neurriei buruzkoa, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legea aldatzen duena.

g) Diru-laguntzak

- 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Diru-laguntzei buruzkoa, eta hura garatzeko erregelamendua, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onetsia.

h) Toki entitateen barne araubidea

- Toki entitateen aurrekontuen exekuzio oinarriak, 2016rako.

- Zergak eta prezio publikoak arautzen dituzten ordenantzak eta akordioak.

- Berariazko hitzarmen kolektiboak.